

Nire pendrivea aurkitu duenari

Espezie berri bateko lehenbizikoa izateak, espezie berri horretako lehen gaixotasunak pairatzea ere badakar. Hasiak gara hainbat sindrome garatzen: e-mail menpekotasuna, hatz erakuslearen dardara xagutiar espasmodiko guragabea, katedra ezartzen duen lixtopasatu ororekiko mesfidantza (“Wikipedian irakurriko zian honek ere...”), sareko komunikazioak dakarren desinhibizioarekiko *junkie* bilakatzea —gauza ederra da sinzeridade erakustaldia urrutiko gailuz egin ahal izatea—. Horiek, cyber-porno adikzioa, santa e-skean idazten dizuten ezezagun guztiekin ping-pong partida birtual etengabeak egiteak dakartzan zaintiratu mentalak eta *ego-surfinga* eta bere arriskuak ez aipatzearren... Laster hasiko dira enpresa-medikuak analisisetan gaixotasun hauek ere kontutan hartzen.

Joan zen astean, kasu, bi gigako ene *pendrive* kuttuna galdu nuen: apunteak, zirriborro argitaraga-beak eta argitara ezinak, fakturak, kolegen liburuei egindako fitxa gupidagabeak... Ez, ez: zaudete lasai ene editoreok... Bete-ko ditut epeak, ez dago aitzakiarik. Galdutako dokumentu ororen “kopiak” dauzkat. Hona hemen beste sindrome bat: bikoizketa etengaberako paranoia, inprimatua izan ez den oro, García Márquezek hala zioen, “robotaren irudimenean soilik” existitzen baita.

Baina batak ez du beste kentzen. Memoria galeraren sentipena oso da desosegarria. Hasieran, euren eskuizkribuak taxi-tan edo kafetegietan ahaztuta utzi zituzten idazle despistatuekin akordatu naiz.

Klasiko bat. Behin betirako galdutako “maisulan” horiek



DANI BLANCO

guztiak —imajinatzen Franz Kafka Max Brodi bere disko gogorra ezabatzeko eskatzen?—. Baina ez da zehazki gauza bera. *Diario íntimo* bat lapurtu dioten pertsona etorri zait burura gero. Hori ere ez da, ordea, erkaketa erabatekoa. Beharbada, memoria-arkatz hauetako bat galtzeari gehien hurbiltzen zaiona, memorian zuloa uzten duten gau zoro horietako bat da, goizegi edaten hasi eta beranduegi lagatzen diogun horietako bat: “Etxera nola heldu nintzen, ez naiz gogoratu ere egiten”. Memoriaren itzalaldi edo *blackout* hori, zulo hori, norberak galdu eta beste norbaitek eskuratu duen memoria puska hori, hain ezdeus eta hauskor sentiarazten gaituena, hain besteen menera. Zer egin ote nuen ordu txikietan? Zer ez ote nuen egin? Nork ote dauka horren berri?

Zer egin behar nuke? García Márquez banintz, idatzitako oro notarioaren esku ipiniko nuke, idazle frustraturen batek nire memoria topatu eta harekin negoziarik egin ez zezan... Edo, akaso, sarean ipini behar nuke ordenagailuko material oro —*work in progress* lotsagarri guztiak barne; azken lerro intimoena ere bai— www.ezhauplagiatu-nikidatziduteta.com helbidean? Ohar bat ipini behar nuke web orri horren atarian, edozein kasutan: “Idazlea bera ere ez dago jada ados berak idatzitako guztiarekin”. Ez al ginen

geratu testu global bat, denona zen autore-tza kolektiboko hipertestu bat sortzea zela erronka, liburuen liburu, sareen sare (*Todos los fuegos, el fuego*) autorerik gabeko narrazio inperfektu amaigabea? Nire subkontzientek nahita galarazi ote dit *pendrive* ditxosozkoa, honenbestez?

Nire *pendrivea* aurkitu duenari... zer opa? Hotel hartako gelan argazki kamera ahaztu zitzaidanean hura aurkituko zuenari opatu nion gauza bera, ziur aski: on dagiola.

P. S. Arrazoi duzue. Neronek ere ez dut sinesten: “Madarikazioa etor bekio eta tximistak erdibi dezala, marfilezko talisman hori aurkitu duena!”. ■

« Zer egin behar nuke? »


García Márquez banintz, idatzitako

oro notarioaren esku ipiniko nuke,

idazle frustraturen batek nire

memoria topatu eta harekin

negoziorik egin ez zezan... »



irudia:

Antton Olariaga